

GAZTEOK EZ GARA LIZAROKO GAZTE

Aize purrustaden ondoren ausi edo eten gabe tinko iraun daben guztiak tinko ta aurreragoko eran jarraitu oi dabe. Aize purrustaden geieneko ondorena euri zaparradak izan oi dira gure lurraldean.

Gure gaztediaren jokera batzuen adi aize purrustaden antzekoak dirudiela esango genduke. Zaparrada ta zalapertada asko baña ondorio ta ongarri gitxi edo eskas. Gizadiak gizonak aizearen indarra ongarritzen ikasi ebenean aize-arrotetarako ta beste edozenbait tresna ta erraminta indargarritzeko aurrerakada aundia egin eban. Aizea indar utsa danez indar ori ongarritzeko beste zapi ta ego batzuek bear izan dira: gizonak teknikaren bidez jokatu bearra izan dau aizea aprobetxatzeko beste izadi-indar batzuek bezela gizonaren otsean eta serbilari egiñarazoteko.

Gizaki bakoitzak aldi daruaguzan ames, egarri ta zaletasunik asko be oso ongarri izan daikegun aizearen indarraren antzekoak dira. Gazteak aizetsuak izan oi dira, aizetsu izatea jagokoe bere biotz eta azur muñetan jario ta gañezka bizia, sasoa dituan. Baña barne-barneetan dituen bultzaka ta bizi-min erasoak aize purrustadak orbelak aruntz ta onuntz erabilli oi dituen bezela gazteok be ibilli ez gaitzen geure buru ta jokeren jabe aizeta bizi-min ito eziñekotan egin gadizan burutsu, argi ta aditsu jokatuta.

Gure lurralde onetan indargarritu ta barrizatu bearreko gauzarik, egitekorik asko daukagu baña gazteok dana apurtu ta ankar gora jaurtiten baño ez dakigula dirudi askotan. Begirapentsuago izan gadizan inguruan ditugun personakin ta baita gure arloetan ditugun zugaitz zar ta landara barriakin be: zarrak eta gazteak alkarrekin txertatu, eztitu egin bear dira ta ez batzuk besteak burukatu ta aintzat artu ez.

Geure erara ta geure gustora al dakigunik geien egiten bagiñardukegu ta egin al gagentzake be bost edo sei urte kontuan jausi orduko pasatzen dira ta orduko ondoren jatorkuz zartzat artu ta esestuko gaituenek, gazte barriak. Ume ta gazte iñor ez da izaten betiko baña ezta LUZARAKO be ta auxe da gaurkoz lasterregi aztu oi doguna.

GUZTIAOK GARA BETI GIZON ETA GADIZAN GIZATSU

Uste dogunez ez dira gazteak aizetsu izanarren gaurko jokabide askoren egarri ta zuzeneraztale. Zar edo sasokoak gabiltz gure arteko gazteok explotatzen. Sasi-aldaketa ta sasi-zuzendariak dira ixil-eskutuka ta topekadaka, indarkeri utsez eta errazoi eskasez gazteok aintzat artuta iñoren, argierazo ezindako asmoak eta egarriak iñoren kontura ase naian.

Iñork ogei edo ogeitaz urteetara arte iñoren kontura bizi, iñork egindakoa norberetzak aprobetxatu besterik egin al dau? ¿Zer dala ta zelako oñarriagaz oi ta garrasi besteak egindako guztia txarto belegoke bezela?

Edonor ikusi ta jakin dagiakenez gazte oneik zuzen ta askatasun billa dabiltzala diñoe baña aginpide egarriz diarduela obeto esan legike. ¿Zertarako? ¿Ez al da izango aurrera be iñoren kontura bizi al izateko iñori on egiteko baño geiago?

Jauntxokerien auuka diarduela dirudi baña jauntxo batzuek beste jauntxo batzuekin aldatu egin legikee iñorentzako begirapensuagoak izaten ikasten ez daben artean.